



Ibiur urtegiaren lanak Baliarraingo errepedean «eragin txarrak» izan ditu

KEXA ▶ «Ez nago Ibiurren kontra, baina gauzak ondo egin behar dira», dio Marzelino Dorronsoro alkateak ▶ 5



Ibiurko lanak direla eta, Baliarrainera doan errepedea «estuagoa eta trazaketa txarrekoa» da orain. N. URBIZU

TOLOSA ▶

Ezker Hormako I. Emakumea Pilotari Txapelketako partidak bihar, Beotibar pilotalekuan

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak bultzatutako proiektuak pilota emakumeengan sustatzea du helburu ▶ 2

JON REKONDO ▶ AIZKOLARIA

«Niri ikaragarri gustatzen zait jendea plazara joatea»

Gaur, Nafarroako II. Mailako Aizkolari Txapelketaren finalean ariko da ▶ 7

ZIZURKIL ▶

Jazz musika protagonista bihar, hiru tabernatan

Iñaki Salvador eta Itsaso Gonzalez, Teresa Zabalza Quinten eta The Cheri Boppers taldeak ▶ 4



Iñaki Salvador. HITZA

TOLOSALDEA ▶

«AHT gelditzea guztion esku» dagoela dio plataformak

Hainbat ekitaldi antolatu dituzte gaur eta bihar obrak salatzeko ▶ 3

BIHAR Zinema Etxean 2

8 DVD euskaraz

+ 4,50 €

berria

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

KIROLAK ▶

Emakumea Pilotari Txapelketaren partidak Beotibarren

Bihar izango dira partidak, 16:00etatik aurrera; «pilota emakumeengan sustatzea» da proiektuaren helburua

ERREDAKZIOA

Pasa den azaroaren 4ean hasi zen Ezker Hormako I. Emakumea Pilotari Txapelketa. Guztira 10 bikote parte hartzen ari dira eta dagoeneko bi jardunaldi jokatu dituzte, Intxaurrondon bata, eta Zestean beste. Hirugarrena, berriz, bihar arratsaldean izango da, Beotibar pilotalekuan.

Txapelketa hau Emakumea Pilotari proiektuaren barnean kokatzen den kirol federatuko ekintza bat da. Iazko denboraldira arte neskek ere elkarteen arteko Gipuzkoako Txapelketa jokatu dute, baina, antolatzaileek diotenaren arabera, «azken urteotan pilotarien joko mailaren arteko ezberdintasuna handitu da eta bi elkarre izan dira nagusi txapelketa guztietan».

Hori dela eta, «pilota lehiaketak interesa galtzen joan dira pixkanaka», eta ondorioz, denboraldi honetarako Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak Emakumea Pilotari Txapelketa antolatzea erabaki zuen, «bikoteak joko mailaren arabera



Emakumea Pilotari Txapelketako partida bat. HITZA

orekatu eta txapelketa interesgarriagoa egiteko asmoarekin».

Txapelketaren hirugarren jardunaldia, aipatu bezala, Tolosako Beotibar pilotalekuan

egingo dute, izan ere, «Tolosa Emakumea Pilotari Proiektuaren barnean sartua dago, udalerrri laguntzailea bezala». Bertan, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak duela bi denbo-

EGITARAUA ▶

Bihar, 16:00etatik aurrera, neska federatuen gomazko paletako ondorengo partidak ikusteko aukera izango da Beotibar pilotalekuan:

Pierola-Goenaga / Fernandez-Unanue
Etxegia-Arribabalaga / Lujanbio-Gurrutxaga
Urkizu-N. Zabala / Jauregi-Arozena
Esnal-Montes / M. Zabala-Argain
Arrondo-Mendizabal / Manzisidor-Lukas

raldi —aurtengoa hirugarrena da— «pilota emakumeengan sustatu asmoz» hainbat ekintza jarri zituen abian: gaur egun martxan dauden nesken bi Paleta Eskola, esaterako. Eskola horietan Laskoraingo taldeak (infantil, kadete eta jubenilak) ostegunetan entrenatzen du, 18:30etik 19:30era Beotibarren, eta Hirukideko taldeak (jubenilak), berriz, ostiralean 17:30etik 19:00etara Uzturpeko frontoian. Ikastetxe guztietan, bestalde, neskei zuzenduriko pilotako sustapen jarduerak burutuko dituzte eta Gipuzkoako Eskolarteko Nesken Paleta Txapelketan parte hartzeko aukera izango dute, besteak beste. «Beraz, gaur egun, Tolosan pilotan neska batzuk badabiltzala kontuan izanik, Emakumea Pilotari Txapelketako jardunaldi bateko egoitza izateko hautagai garrantzitsua iruditu zaigu», diote antolatzaileek.

Hala, herritar guztiak animatzen dituzte, Gipuzkoako Euskal Pilota Federaziotik, bihar 16:00etatik aurrera izango diren neska federatuen gomazko paletako partidak ikustera joatera.

KULTURA ▶

'Triki traka triki tron' saiorako txartelak salgai

Datorren astelehenean eta asteartean, hilaren 20ean eta 21ean, izango den *Triki traka triki tron* emanaldirako sarrerak eskuragai daude Tolosako La Caixa banketxeko kutxazainean.

KIROLAK ▶

Zesta-punta partidak gaur eta bihar

Gipuzkoako Elkarteen Arteko Zesta-Punta Txapelketaren baitan, gaur kadeteen 1. mailan, Beotibar frontoian, 18:45ean, Beotibar 1 eta Zumaia 1, eta Beotibar 2 eta Donostia 1 ariko dira nor baino nor. Bestalde, Uzturpen, nagusien 1. mailan, 20:15ean, Beotibar 1 eta Beotibar 3 lehiatuko dira, eta jubeniletan, Donostia eta Beotibar. Bihar, Mutrikun, 16:00etan, nagusien mailan, Zumaia 1 eta Beotibar 2 lehiatuko dira.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdia)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ### Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udalaitzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

GIZARTEA ▶

Jabier Urkolari omenaldia egingo diote gaur, Usabal sagardotegian, bere heriotzaren 10. urteurrenean

Altzairuaren alorrean euskaraz egindako ikerketa lanengatik nabarmendu zen tolosarra

ERREDAKZIOA

Bere heriotzaren 10. urteurrenean, Jabier Urkola (Tolosa, 1946) tolosarra omenduko dute gaur Usabal sagardotegian egingo duten afarian.

Altzairuaren ikerketan Europako lehen mailako aditua izan zen Urkola injenieri eta irakaslea, eta maila horretara euskararen bidetik iritsi zen. Goi mailako ikerketak euskaraz egin zitezkeenaren frogan izan zen, bideak ireki zituen. 1995ean, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroa-

ko Industri Injineruen Elkargoak euskararen alorrean egindako lana eskertuz eman zion saria. Donostiako injenieriaren eskolan eta Sheffieldeko unibertsitatean doktoratu zen. Euskal Herriko ikerketek Europan oihartzuna izatea lortu zuen. 1996an hil zen, istripuz.

Hala, lankide, lagun eta familiakoek gaur egingo dioten ekitaldian, besteak beste, Michael Sellars *honoris causa* doktora edota Txileko Injeneritza unibertsitateko errektore orde izandakoa ere izango dira.



Jabier Urkola. HITZA

ZUZENKETA ▶

Atzoko egunkarian, Eusko Jaurlaritzak emandako diru laguntzei buruzko orrialdean, eskualdeko idatzizko hedabideek jasoko duten kopuruetan, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN datua falta zen. 2005ean 34.211 euro jaso zituen, eta 2006an, berriz, 40.000 euro jasoko ditu, %14,47eko hazkundea, beraz.

GUTUN@K ▶

Orain da garaia
AHT gelditzeko!

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak salaketa larria egin du Euskal Y-aren lanak hasi dituztelako. Eta gertakizun larri honen aurrean, herritarrei dei egiten diogu mobilizazioetan parte hartzeko. Hauen bitartez, kalte ekologiko eta sozial larriak eragingo litzuzkeen proiektu txikitzaile hori berehala geldiaraz dezatela exigitzen dugu.

Herriaren erantzunak indartsua izan behar du: Abiadura Handiko Trena Euskal Herrian eta Tolosaldean egitasmorik gaitzetsi eta kritikatuena da, hori dela eta, obrak hastea onartezina da.

Gainera, Tolosaldeko Udalek, Jaurilaritzak eta Espainiako gobernuak orain arte ezarri duen erabateko ilunkeria salatzen dugu. Sustapen Ministerioak AHTren eraikuntza lan horiek hasi baititu dagoeneko, inolako informaziorik eman gabe eta Eibar-Gasteiz autopistarentzat desjabetutako lurretan, Arabako Luku herriskaren ondoan.

Orain da garaia indarrez erantzuteko eta herriz herri AHTren aurkako mobilizazioak zabaltzeko eta sendotzeko. Obrak gelditzeko ez da berandu eta Abiadura Handiko Trenaren inposaketari, besteak beste, Urbinan, Gasteizko hemezortzi kontzejutan, Itsasondon eta Alegian ere egingo diren herri galdeketekek duten zilegitasuna kontrajarri behar dugu. Halaber, AHTren kontrako oposizioa etorkizunari begira egindako apustu bat bezala dakusagu. Honekin, herriari bere erabaki propioak hartzeko ahalmena emateko eta erakundeetatik ezartzen ari den garraio eta gizarte eredu suntsitzailearen eztabaidagai jarri eta eraldaketa sakon bati ekiteko.

Horregatik, Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanean plataforman biltzen garenok AHTren aurka erantzun zabalena emateko, alde batetik, Urbinan, gaur, AHT Ez erresistentzia gunean eta, beste alde batetik, bihar, Gasteizen arratsaldeko bostetan, Iparalde Gizarte Etxetik antolatuko dugun manifestazioan parte hartzeko deia egiten dugu. Gaurko mobilizazioetara joan nahi duenarentzat, Tolosako Triangulo plazan 15:30ean egin dugu hitzordua.

DAVID MIANGOLARRA ETA MIREN ABURUZA ▶ TOLOSALDEKO AHT GELDITU! ELKARLANAREN IZENEAN

AHT ▶

Plataformakoen ustez
«AHT gelditzea
denon esku dago»

Euskal Y-aren obrak egiten hasi izana salatzen asmoz,
hainbat ekitaldi antolatu dituzte gaur eta biharko



Aurten hainbat ekitaldi egin dituzte AHTren proiektua salatuz... HITZA

ESTI EZEIZA

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak, beste hainbat elkarre, talde eta herritarrekin batera Euskal Y-a eraikitzen hasi izana gogor salatu dute. Lan berri hauek direla eta, herritarrei dei luzatzen diete, «kalte ekologiko eta sozial larriak eragingo litzuzkeen proiektu txikitzaile hori berehala geldiaraz dezatela exigitzeko eta beraien iritzia eta kontuan har dezatela eskatzeko».

Bestalde, Tolosaldeko hainbat Udalek, Eusko Jaurilaritzak eta Espainiako Gobernuak obren inguruan «ezarritako ilunkeria» gaitzetsi dute AHT Gelditu! Elkarlanean plataformakoei. Izan ere, «Sustapen Ministerioak inolako informaziorik eman gabe» Eibar-Gas-

teiz eupistarentzat desjabetutako lurretan hasi ditu AHTren eraikuntza lanak, Arabako Luku Herrixkaren ondoan.

Plataformakoen ustean oraindik ere lanak gera daitezke. Horregatik, «orain da garaia indarrez erantzuteko eta herriz herri dei luzatzen diete, «kalte ekologiko eta sozial larriak eragingo litzuzkeen proiektu txikitzaile hori berehala geldiaraz dezatela exigitzeko eta beraien iritzia eta kontuan har dezatela eskatzeko».

Bestetik, ez datoz bat Nuria Lopez de Gereñu Eusko Jaurilaritzako Garraio eta Herri Lan sailburuak esandakoarekin. Azken honen esanetan «ezta-

baidarako garaia amaitu da». Baina plataformakoen aburuz, «oraindik ez da eztabaidarik egon». Honen harira abenduaren 3an Itsasondon galdeketa bat egingo dute. Hurrengoa Alegian izango da, eta gerora beste batzuk gauzatuko dituzte. AHT Gelditu! Elkarlanean hitzetan, «herriak izan behar du hitza». Bestalde, «garaia da erakundeetatik ezartzen ari diren garraio eta gizarte eredu suntsitzaile hau eztabaidatzeko, eta eraldaketa sakon bati ekiteko».

Hainbat ekitaldi

Lehen aipatutako arrazoiak direla eta, plataformakoei eta beste hainbat eragilek aste honetan gauzatuko diren mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatu diete Tolosaldeko herritarrei. Ekitaldi ezberdin hauekin, Euskal Y-aren obrak hasi izana salatuko dute. Alde batetik, gaur Urbinan AHT EZ izenpean gauzatuko den erresistentzia gunean parte hartzeko gonbita luzatzen dute. Hara joan ahal izateko kotxeak antolatu dituzte, batzuk 08:15ean aterako dira Triangulo plazatik, eta besteak 15:30ean. Bihar berriz, arratsaldeko bostetan, Gasteizen, Iparalde gizarte etxetik abiatuta manifestazioa egingo dute. Ekitaldira joan nahi duenak autobusez egin ahal izango du. Hau, 15:00etan aterako da eta hainbat geldialdi egingo ditu askualdean: Villabonako Olaederra kiroldegian, Anoetako plazan eta Tolosako Trianguloan.

TOLOSA ▶

Igandean hasiko da
Milagrosaren
bederatziurrena

Milagrosaren bederatziurrena ospatzen hasiko dira etzi lurrarendiko kaperan. Hala, bederatzi egunetan zehar, hilaren 27ra arte egingo dira elizkizun bereziak. Igandeean, goizeko bederatzietan eta arratsaldeko lau t'erdietan izango dira. Gainontzeko egunetan berriz, 08:00etan eta 16:30ean izango dira.

TOLOSA ▶

Trafiko aldaketak,
Voith enpresa
botako dutelako

Voith lantegiaren pabilioi zaharra, Larramendi kalekoa, botatzeko obrak direla eta, segurtasunarengatik, asteburu honetan aldatu egingo dute aipatutako kalean ibilgailuen joan-etorria. Hori dela eta, Udaltzaingoa, hirigunetik sartu eta ateratzeko Anoeta-Irurako errepidea erabiltzea gomendatzen du. Autobiderra irteteko berriz, Amaroekoa eta Olarraingo sarrera. Garraio publikoan ere eragin bera izango dute lanek. Beraz, hauek ere ohiko ibilbideak aldatu egin beharko dituzte.

TOLOSA ▶

Ahotsak-en
sinadura bilketa
hilaren 25an da

Ahotsak plataformak, sinadurak biltzeko bihar jarri behar zituen mahaiak azkenean ez ditu ipiniko. Aipatutako sinadura bilketa datorren larunbatean, hilak 25 egingo dute. Bestalde, egun berean, abenduaren 2an Euskalduna Jauregian egingo den ekitaldira joateko antolatuko diren autobusen inguruko informazioa emango dute.

TOLOSALDEKO
HITZA.INFO

Eztabaida. Leidor areto berria: «Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak diruzta inbertitu du honetan. Helburuetako bat akustika hobetzean zetzan. Hori lortu denik ez dute denek uste, ordea. Zer iruditzen zaizu? hobetu egin da? Zein alde onak ditu?» Eman iritzia!

iragarki laburrak ▶

LANA
Sukaldaria. Asteburuetarako sukaldari laguntzailea behar da, eskarmentuduna. 636 72 48 05.

SALGAI
Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995ekoa. 153.000 km. 18ko llantak,tebua. 14.000 euro. 943 65 41 43.
Pisua. Leitzan pisua salgai. 158.000 euro. 943 65 25 81

TOLOSALDEA GOMIARAKO I. H. INSTITUTUA

FORMAKUNTZA IKASTAROK (Langileentzat)
KUALIFIKAZIO PROFESIONALEN SISTEMA - KATALOGO MODULARRA

IKASTAROA (KREDITO FORMATIBOA)	ORDUAK	HASIERA	ORDUTEGIA
Datu-Baseak administrazioa (ACCESS)	80	2006-11-27	18 - 21
Etxebizitzetako instalazio elektrikoak	60	2006-11-27	18 - 21
Muntai domotiko zentralizatuak (DOMOTIKA)	40	2006-11-27	18 - 21
Elektrodo estali bidezko angelu soldadura	80	2006-12-11	18 - 21
Erregulazio automatikoko elementuak (HIDRAULIKA)	20	2006-12-11	18 - 21
Kalitatearen kudeaketa	20	2006-12-11	18 - 21

BESTE IKASTAROK WEB ORRIAN

Matrikula eta informazioa: Telefonoa 943 65 11 47 - Santa Luzia, 17 - 20400 TOLOSA
idazkaritza@tolosaldea.com • www.tolosaldea.com

AMASA ▶

Sanmartinek jarraipena izango dute bihar eta etzi

ERREDAKZIOA

Amasako sanmartinek jarraipena izango dute asteburu honetan. Horrela, bihar, 12:00etan, Andoni Zuriarrain eta Jokin Etxeberria amasarrak Jesus Ormaetxea Urkiren eta Arkaitz Arteagaren aurka ariko dira segan eta lokotx biltzen. 14:00etan herri bazkaria egingo dute eta 18:30etik aurrera argazki lehiaketako argazkien proiektzioa eta sari banaketa egingo dute Kultur Etxean. 23:30etik aurrera Etxabe Anaien emanaldia eta ondoren Xabi Dantzaleku.

Etzi ere izango da ekitaldirik. 11:00etan hasita Amasako XIV. Mendioloia eta festei amaiera emateko, 18:00etan XVII. Intxorren aldatzea eta Martina Sorginari agurra.

ADUNA ▶

Umore Gaua izango dute gaur Asvinenean

Asvinenean Umore Gaua izango dute gaur 22:30etik aurrera. Bertan laburmetraiak, ipuinak eta ezustekoren bat edo beste izango dira.

VILLABONA ▶

Olaederrako IX. Areto Futbol Lehiaketa hastear

Villabonako Olaederra kiroldegia antolatzen duen Areto Futbol Txapelketa etzi hasiko da. Aurtengoa IX. edizioa izango da.

ANOETA ▶ HEZKUNTZA



ZIZURKIL ▶ KULTURA

Jazz musikaz gozatzeko aukera bihar hiru tabernatan

Iñaki Salvador eta Itsaso Gonzalez, Teresa Zabalza Quintet eta The Cherry Boppers taldeek emango dituzte kontzertuak

ERREDAKZIOA

Zizurkilan ezer ez da festa egitasmoaren baitan, Zizurkilgo Jazz Gaua antolatu dute bihar. Hiru taldek emango dituzte kontzertuak, hiru taberna ezberdinetan, eta sarrera doan izango da. 22:00etan hasiko dira emanaldiak Iñaki Salvador eta Itsaso Gonzalezekin, Atxulondo tabernan. Ondoren, 23:15ean, Teresa Zabalza Quintet taldeak Egarrri tabernan eskainiko du kontzertua. 00:30ean, The Cherry Boppers emango du emanaldia, Aurrera tabernan.

Iñaki Salvador eta Itsaso Gonzalez. Iñaki Salvador pianojo-

lea, moldatzaile eta konposatzailea da. Musika modernoaren eta jazzaren alorrean, batez ere autodidakta da. Bere jazz taldeen buru da: Iñaki Salvador Trio, Naima Quartet, Andrzej Olejniczak-Iñaki Salvador Quartet, Iñaki Salvador & Zilbor Hestea. Guztiekin diskak editatu ditu. Salvador Itsaso Gonzalez abeslariarekin ariko da biharko emanaldian.

Teresa Zabalza Quintet. Jazz baina gehiago, musika moderno egin nahi zuen Teresa Zabalzak Iruñetik Bartzelonara jo zuenean eta bertan ezagutu zituen egun bere boskotea osatzen dutenak: Alejandro Mingot gitarran, Miguel Pintxo Vi-



Iñaki Salvador. HITZA

Soinketa eta jolasak uztartzen

I. Garcia ▶ Eskualdeko hiru ikastetxeko DBH 3. mailako ikasleek parte hartu zuten atzo Anoetan egindako Euskal Soin Jarduera proiektuaren ekitaldi berri batean. Anoetako ikastolako, Villabonako Jesusen Bihotza ikastolako eta Alegiko Aralar ikastetxeko ikasleek parte hartu zuten hainbat jolas eginez. Elkarlana sustatzea da egitasmoaren helburuetako bat eta jolas guztietako talde lanean aritu behar izan zuten. Argazkiko artzain jokoan, esaterako, non ardiak artegira gidatu behar zituzten. I. GARCIA

llar saxoan, Iosu Izagirre kontrabaxuan eta Hasier Oleaga baterian. 2004ko neguan *Euria* izeneko diskoa kaleratu zuten eta bertan Carme Canela kantariak hartu zuen parte. Swing, cha-cha-cha eta bolero doinuek bat egiten dute jazz parteeekin, betiere askatasunaren izenean, diskoan eta euren zuzenekoetan.

The Cherry Boppers. Erritmo beltzak gustuko dituen taldea da The Cherry Boppers. Bilbotik, jazz funk eta acid jazz kutsuko groove-ak, doinu beroak, biziak eta gustagarriak jorrazten dituzte. Maceo Parker, James Brown, Reuben Wilson, Lonnie Smith, Grant Green eta era horretakoak aurkitu daitezke, euren musikarekin batera, Noizpop disketeak argitaratutako *Dressin' the puppet* estroinako diskoan.

OIARTZUNGO VII.ESKALADA TXAPELKETA HERRIKOIA

AZAROAK 18
Elorsoro ikoldegian

Izen ematea:
943 49 25 52
9:00etatik 10:00etara egunean bertan

Antolatzailea:

hitza

LIBURUDENDA PAPERDENDA

M AIMUR

Prensa-Liburuak
Faxa-Fotokopiak
Zerbitzu berria: Mota guztietako dokumentuen artisau enkuadernaketa

Tel./Faxa: 948 51 01 46 • Elbarren, 17 • LEITZA

NE Nekane Caballero
Lda Col 3429

■ Aholkularitza juridikoa:
zibil, penal eta administratiboa
■ Higiezin zerbitzuak

Andia kalea, 1 • 1C • 20400 TOLOSA
Tel.: 943 11 82 82

KONTSU TABERNA

Asteburuko menua
Plater konbinatuak
Astearteak ibitza
Orexa • 943 68 21 54

BALIARRAIN ▶ HIRIGINTZA

Ibiurko obrak hastearekin «ondorio txarrak hasi dira»

Urtegiarengatik herrirako errepide «estuagoa eta trazaketa txarrekoa» egin dute



Ibiur urtegirako presa egiten hasiko dira aurki. Ondorioz, Baliarrainerako errepidea aldatu egin dute. n. u.

NEREA URBIZU

Hasi dira Ibiur urtegiaren obrak egiten. Zuloa ikus daiteke Baliarrainera joandako bidean ezker aldera begiratuta. Dikea edo pareta uztailen hasi behar zen, baina azkenean azaro aldera hasi ziren lanekin. Marzelino Dorronsoro Baliarraingo

alkatearen esanetan, «obra asko luzatzen ari da, baina azkenaldian mugimendu piska bat somatzen ari da».

Baliarrain Gipuzkoako herri-rik txikiena bihurtu da: «Hori bagenekien gertatuko zela, Ibiur urtegia egitearekin 3 basterri eta laister, etxebizitza bat eraitsiko dituztelako. Han bizi

ziren 21 lagunek alde egin zuten. Hori 200 biztanle inguruko herri batentzat asko da», Marzelino Dorronsoro Baliarraingo alkateak adierazi zuenez. «Hau izan da Ibiur urtegiaren ondorio zuzen bat. Horietako 3 bizilagun herrira etorri dira bizitzera, baina beste guztiak alde egin dute».

MARZELINO DORRONSORO ▶ BALIARRAINGO ALKATEA

«Ez nago Ibiurren kontra, baina gauzak ondo egin behar dira»

11 urte daramatza Baliarraingo alkate bezala, eta 10 urte dira Ibiurko lanen kontuarekin hasi zirena. Horrez geroztik aldaketa handiak eman dira herrian, eta oraindik ere asko egiteko dagoela dio 52 urteko alkate baliarraindarrak.

Ibiur martxan. Honen alde al zaude?

Nik ez dut esaten Ibiur gaizki dagoenik, edo beharrezkoa ez denik. Ur faltan dagoenak ura izan dezala, noski. Ondo etorriko da. Baina gauzak ondo egin behar dira, esandakoak betetz. **Herriak abantailaren bat**

izango du urtegia egitearekin.

Ematen duenez, turismo alde-rik igo egingo da: urtegiari bira emateko 6 kilometroko ibilaldia izango da eta polita izango da paseoa.

Errepidea trakets samarra dela esan beharra da.

Bai, horrekin oso haserre gaudu. Hori ez zuten hasiera batean esan, ez diputaziokoek, ezta obretako zuzendariak ere. Gezurrak dirudi, gaur egun horrelako errepide bat egitea. Kilometro bat egin dute, eta onartezina da. Seinalizazioa ere



N. URBIZU

okerrago ezin da izan: lantegi-tatik sartu behar gara eta dagoeneko sustoren bat ere izan dugu. Azalpenak eskatu dizkiegu arduradunei, eta aldaketaren bat egingo dutela dirudi. Ikusiko da... ◀

Errepide berria, «onartezina»

Urtegiaren beste ondorio zuzena «eta serioa» Baliarrainera joateko errepide berria da. «Aldundiko bide Azpiegiturako Saileko Zuzendaritzatik bi jakinarazpen jaso genituen: batean Zuzendari Nagusiaren ebazpena». Honetan, drainatze-lanak eta eusteko elementuak hobetzeko asmoa agertzen zuen, eta «bestean Baliarraingo bideak 9 metro izango zituela».

Honen aurrean eta «egin direnak ikusita kexatu egin gaitzaizkie». Bidearen trazaketaren gainean «desadostasun handiak izan ditugu beti, eta alternatibak aurkeztu izan ditugu». Malda, kokapena, trazaketa, seinalizazioa edo bide bazterrak dira, besteak beste, kezkatzen dituztenak. «Zabale-rra ere ez dute errespetatu, 7 metrokoa egin baitute». Horrelako kexekin ekainaz geroztik daude, errepidea martxan jarri zenetik, alegia.

Bidearen ertzak babestu gabe daude, eta «ziurtasun neurriak betetzen ez dituen bidea egitearena ezin dugu ulertu», gogoratu zuen alkateak.

Honen aurrean, eskaera egin zioten irailen Errepide Saileko Diputatu eta Zuzendariari. Lehenik «segurtasun neurriak hartzea lehenbailehen», eta «ur konfederazioak bidearen zabalkuntza exekutatzeko». Langile batzuk oraindik errepide moldatzen ari dira.

ALEGIA ▶

Intxurreren futbol eta areto futbol partidak

Gaur Alegiko pilotalekuan nesken Intxurre areto futbol taldearen partida izango da 21:00etan, Zestoa B taldearen kontra. Lurreldekako mutilen futbol taldeak bihar 15:30ean jokatuko du Ordi-ziakoen kontra. Jubenilak Beasainera joango dira bihar 15:30ean, eta kadeteek etxean Lazkaokoen aurka izango dute norgehiagoka, bihar 11:00etan.

IKAZTEGIETA ▶

Etzi, XVI. Kros Herrikoia 11:00etan

Etzi Ikaztegieta XVI. Kros Herrikoia korrituko dute. 11:00etan hasiko dira Ikaztegieta bertan. Izena emateko bi aukera daude. Bata www.herrikrossa.com helbidetan emanez, 6 euroren truke, eta karrerako egunean bertan bestela, 09:00etatik 10:00etara bitarte.

ALEGIA ▶

Gaztetxoen arteko pilota partidak, bihar

Hauk izango dira Alegiko pilotalekuan jokatuko dituzten partidak 16:30etik aurrera: G Multzoko lehena Aurrera Saiaz 3, Intxurre 1 izango da. Ondoren, Aurrera Saiaz 2, Kuku. H Multzoko, aldiz, Behar Zana 2, Erniope ariko dira, Intxurre 2, Gaztelekuko- en artekoarekin amaitzeko.

31 nafarroako euskal kantu txapelketa

finala

AZAROAK 18

18:00etatik 20:30era
23:00etatik 01:00etara

...eta gero saiaz
launibal gudietan bezala, **GAUPARAN**
goteko 7ak arte

7 musika-goa:
Euskal Musikarik Hoberena Berria eta Tormento di-ekin
eta House Gary di, eta Nafarroekin

SALA 31 www.sala31.com <<http://www.sala31.com>>
Pol. Ind. N°31 LEKUNBERRI • 902 231 331

IBARRA ▶ KULTURA

Eneko Aritzaren 'Sua' filmaren grabaketa

Etzi goizean egingo dute grabaketa; antolatzaileek dei zabala egin die eskualdeko herritarrei parte hartzeko



Eneko Aritzaren inguruko informazio gehiago eskuratzeko sartu www.enekoaritzarenlagunak.net-en. HITZA

MADDI SOROA

Eneko Aritzaren Lagunak Kultur elkarteak *Sua* filmaren grabaketa saioa egingo du etzi. Hori dela eta, antolakuntzatik dei berezia egin nahi izan dute ahalik eta jenderik gehien bildu dadin grabaketan parte hartzeko.

Gogoratu, Eneko Aritzaren Lagunak *Eneko Aritza* laburmetraia grabatu zutela lehenengo proiektu gisa. Orain, ordea, bigarren proiektuarekin dabilta lanean, *Sua* laburmetraiarekin, hain zuzen ere. Horretan buru-belarri dabilta duela urte bete baino gehiagotik, laburmetraia batek eskatzen duen lan andana ez baita makala. Etzi, lan luze baina jarraituaren aurrerako beste pausoa izango da.

Filmaketa, esan bezala, etzi goizean egingo dute Berastegin, bertako borda bat izango baita eskenatoki nagusia. Bertan parte hartu nahi duen orok 11:00etan Ibarako plazara agertu beharko du, bertan elkartuko baitira parte hartzaile guztiak. Autoarekin edota aurtorik gabe, izango da modurik denen artean Berastegira joateko. Eskena bakarria grabatuko denez, 16:00etarako lanak amaituta izango direla aurreikusit dute antolatzaileek.

Grabaketan eraman beharko dituzten jantziei dagokionez, antolatzaileek adierazi dutenaren arabera ez dute jantzi berezirik eraman behar, beraiek eramango baitituzte. Hala ere, inork abarkak izango balitu, etziko grabaketara eramatea eskatzen dute. Bestalde, jende-

ak arkuak edota ballestak izango balitu, hauek ere Berastegira eramatea eskatzen dute.

Eneko Aritzaren Lagunak elkartekoek adierazi dutenaren arabera, «jende guztiak parte hartzea» nahi dute, horregatik «ondo pasatzeko gogoia baduzue, animatu!» deia egin dute. Era berean, «aldez aurretik guztiak eskertu» nahi izan dituzte.

Sorgin baten atxiloketa

Sua filmaren etziko grabaketan sorgin baten atxiloketa izango da landuko duten gaia. Hori dela eta, parte-hartzaileetako askok soldadu papera bete beharko du. Akzio handiko eskena izango da etzi grabatuko dena, beraz, interes faltarik ez da izango.

DOLORES EGUES ▶ SERORA

«Herritarrak eskertu beharrean nago»

Elduako elizan 38 urtetan egindako lanaren errekonozimendu gisa omenaldia jasoko du, etzi



MADDI SOROA

M. SOROA

Sortzez elduaindarra izan arren, urte asko daramatza Lourdes Eguesek (Elduain 1928) Elduan bizitzen, bertako batekin ezkondu baitzen. Elduako eliza garbitu, loreak jarri eta kendu, irakurgaiak presatu eta elizaren inguruko lanetan diharu duela 38 urtez. Egindako lanaren errokonozimendu gisa, omenaldia jasoko du etzi herritarren eskutik.

Omenaldia egingo dizutelako pozik egongo zara, ezta?

Bai, oso pozik nago. Ez nuen inondik inora pentsatzen halako zerbait egingo zidatenik. Eskertzekoa da jendeak zuk egindako lana errekonozitzen duela ikustea. Ebangelioak dioen bezala *egin lan, hartzeko as-*

morik gabe eta horixe izan da nik egin dudana. Herritarrak eskertu beharrean nago nirekin oroitzeagatik.

Elduako Ama Birgina prozesiora aterata euria egiten omen du.

Horrek egia izan behar du, Elduako lagun askok hala esaten du behintzat. Orain, Donostiara eraman dute errestatuzera.

Nola ikusten duzu gaur egungo gazteak eta elizaren arteko harremana?

Nahiko estu dago gauza. Oso gazte gutxi joaten da mezetara, ospakizun handi edota hileta elizkizunetara bakarrik. Orain, ordea, laikotasuna indar handia hartzen ari da eta honek eutsiko dio elizari. Gazteak ere, konturatuko dira, merezi duela, alegia.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldecohita.nfo



JON REKONDO ▶ AIZKOLARIA

«Jendea plazara joatea ikaragarri gustatzen zait»

Doneztebeko ferietako herri kirol jaialdiaren barruan Nafarroako II. Mailako Aizkolarari Txapelketaren finalean ariko da gaur Jon Rekondo aizkolaria

NAIARA GARZIA

Gaur Donezteben jokatu du ten txapelketaren aurrean hagitx lasai dago Jon Rekondo aizkolaria. Azkeneko txapelketa joan den larunbatean jokatu zuen, mundukoa, eta hirugarren gelditu zen ofizialki, bigarrenak adina puntu jaso arren. **Zenbat urterekin hasi zinen aizkorarekin?**

16 bat urterekin. Ni normalean amonarekin bizi naiz, base-riian eta Sara Legitarrak auzokoak dira. Kristinarekin hasi nintzen 16 urte nituenean.

Txikia zinela egunen batean aizkolaria izanen zinenik pentsatzen al zenuen?

Ez. Orduan Kristina azpeitiar batekin ibiltzen zen aizkorian eta honek min hartu zuen. Eta Erribera aldean erakustaldi bat egin beharra zuen eta berak joan ezin zuenez, nik egin nuen bere orde.

Zale izatetik profesional izatera pasa zinen gero. Nolakoak izan zen urrats hori?

Urte hartan, lehenengoan, ez nituen erakustaldi gehiegi egin, 10 bat inguru. Hurrengo urtean erakustaldi asko egin nituen eta hobetzen joan nintzen pixkanaka.

Urtean zenbat erakustaldi eta txapelketa izaten dituzu?

Erakustaldiak 50 inguru eta txapelketak, berriz, 3 edo 4 izaten dira urtean.

Zer egur duzu gustukoan?



J. ASTIBIA

Egurak batzuk gogorragoak izaten dira, eta beste batzuk, berriz, beratzagoak. Hemen normalean pagoarekin ibiltzen gara. Makala ere batzuetan ibiltzen dugu, bereziki aizkolaria australiarrekin.

Tolosan duela gutxi Euskal Herriko finala jokatu zen, eta Olasagastik bere haserrea

erakutsi zuen txapelketetan erabiltzen den egurren aurrean. Zer iruditzen zaizu hau?

Aizkolarien artean ezinezona badago. Lehenago, adibidez, Arrospeide 30 minututan enborra moztzen bazuen, orain 10 minutu gehiago behar izaten ditu eta denei gertatzen zaigu.

Enborrak aukeratzeko diren berak aizkolariek bertan egon beharko luketela exijitu zuen.

Niri ongi iruditzen zait. Urtekit urtera txapelketetan askoz ere egur txarragoa ari dira jartzen eta egun batean, beharbada, aizkolariek, elkar hartuta, ez moztea erabakiko dugu.

Egurra nondik ekartzen du ten esaten al dizuete aizkolariei?

Normalean ez. Gainera, batzuk egurra moztu eta handik hila-bete batetara jartzen dute txapelketa eta ordurako erabat lehortuta dago. Tolosan, adibidez, pasa den igandean, 2 minutu t' erdi pasa zituen Larretxeak egur bat moztzen eta berez minutu batean moztu behar zuen.

Erakustaldietan ere gauza bera gertatzen al da?

Ez, kasu honetan guk eraman ditugu egurrak eta askoz hobekiago aritzen gara.

Gaur Donezteben jokatu duen txapelketari begira asko prestatu al zara?

Donezteberako dezente prestatu naiz. Aizkorian ibiltzeaz gain, mendira ere joaten naiz, eta tarteka gimnasia, baina gerrietatik gaizki gelditzen naitenez ez naiz gehiegi joaten.

Zein da zure ustez favoritoa?

Luis Maria Belarra Doneztebeka eta Xabier Mendegia Beintza Labaiengoa.

Zer helbururekin zoaz txapelketara?

Lasai xamar noa, aurreko urtean ni nintzen favoritoa eta hirugarrena gelditu nintzen, beraz ez dago jakiterik...

Zertan da ona Jon Rekondo?

Gauza guztietan ez naiz oso ona, baina nahiko ongi moldatzen naiz orokorrean; zutik oso ondo aritzen naiz, baita egur batetara ere. eta 8 edo 10ekin ere ongi moldatzen naiz.

Jendea plazara joatea gustuko al duzu?

Niri ikaragarri gustatzen zait oihuka hasten direnean, gusturago aritzen naiz. Batzuk, berriz urduri jartzen dira.

Aizkolarri bezala zure helburua zein da?

Enborrak moztzen jarraitzea eta Lehenengo Mailara pasatzen banaiz, ba ederki.

LEITZA ▶ ZINEMA

‘Sumas y restas’ filma ikusgai gaur, zineman, 22:30ean

Denei zuzendua dago eta Kolonbia eta Espainiaren arteko elkarlanaren ondorio da

N. GARZIA

Herriko zinema-zaleak pozik egon daitezke, oraingoz beste hiru asteburuetarako zinematik martxan jarraituko baitu. Gaur, 22:30ean, Victor Gaviriaren az-

keneko luzemetraia izanen da ikusgai: *Sumas y restas*.

Istorioa Medellinen, Kolonbian, gertatzen da, droga-trafiakoak indar handia duten uen batean. Santiagok arazo ekonomiko larriak ditu, eta lagun




Filmaren kartela. HITZA

batzen bitartez, Gerardo ezagutuko du, kokaina trafikatzaila. eta festa, droga eta emakume lorterraren munduan sartuko da, eta honen ondorioz, sikario eta narkotrafikoaren esparru arriskutsuan.

Berak ekindako bide berri honek arazo ugari ekarriko dizkio, istorioa aurrera doan heinean bere familia eta laneko egoera hondatzen joango baitira, indarkeriaz beteriko egoera batetara iritsi arte.

Apirilean estreinatutako filma honen aktore nagusiak Juan Uribe, Fabio Restrepo eta Maria Isabel Gaviña dira eta 108 minutuko iraupena du.



Salgai (Tolosa) Lurrarendi auzoan etxe zoragarria. Aparta. 5 logela, 3 bainugela, sukalde osatua eta oso polita. Garage bikoitza eta itxia. Lorategia ere badu.

Salgai (Tolosa) Aparta. Gernikako arbolan 93m2. Garaiea aukeran. **Salgai (Iruia)** Laskibar parkean. Pisu berria estreinatzeko. 106m2. Garage bikoitza.

Salgai (Tolosa) Korreo kalean 75m2. Eraberritua. Bizitzera sartzeko prest. **Salgai (Tolosa)** Letxuga kalean 50m2. Estreinatzeko. Oso polita.

Salgai (Araun) San Martin. 60m2. Eraberritua estreinatzeko. Aukera aparta!

Salgai (Ibarra) 90m2. Eraberritua estreinatzeko. Kalitateko materialekin egina.

943 69 71 96 • 675 705 268
Korreo Kalea 50



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Aduna. Kultur Astearen baitan, 17:15ean, Enkarni Genuaren *Erreka Mari* txoxongiloak, kultur aretoan; 18:00etan, Loatzo musika eskolarkoen kalejira; 21:00etan, *Aupa Etxebeste* filma, kultur aretoan.

Aduna. Umore gaua, Asvinenean, 22:30ean laburmetraiak, ipuinak eta ezustekoak.

Alegia. 17:30ean. Korri, Xaito eta Brinko pailazoak izango dira ikusgai, Alegiko Kultur Etxeko batzar aretoan. Galtzaundi Euskara taldeak antolatutakoa da.

Berastegi. Idoia Sanchez ipuin kontalaria izango da, 16:30ean, gela balioanitzean.

Berastegi. Odola jasotzera etorriko da gaur odol bankoa. Odol emailde guztxi egiten die deialdia elkarteak, 18:30ean, Muñagorri ikastetxean.

Elduain. Idoia Sanchez ipuin kontalaria izango da, 18:00etan, Larte kultur etxean.

Tolosa. Leidor aretoan, 21:00etan, umorezko sketch-ak Robert Farmer artista australiarren eskutik. Geroago, mimo ekitaldia Iñaki Montero eta Manuel Guerecack eskainita. 22:00etan, *Extrañas Pablo Entrañas* saioa Capficats antzerki taldearen eskutik. Zeinu hizkuntzan eskainiko dute interpretearen laguntzarekin.

Tolosa. Euskal Herriak autodeterminazioa ekimenaren harira Stupenda Jones taldearen kontzertua, Bonberenean, 22:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotza*.
 20:00-21:00. *Asteko onena*.
 21:00-22:00. *Igo bolumena*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Bi haurrek atera zituzten zenbakiak kuxatik. I. GARCIA



Zenbait gaztek protesta ekitaldia burutu zuten. I. GARCIA

Zerrenda zehaztuta

VILLABONA ▶ Flemingo eremuan egiten ari diren babes ofizialeko 20 etxebizitzak eskuratzeko zerrendaren zozketa burutu zuten atzo Gurea aretoan



Jende ugari joan zen Gurea aretara zozketaren berri zuzenean izateko. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Gurea aretoa gainezka zegoen atzo arratsaldean. Ez zegoen, baina, kontzertu edo antzezlanik tarteko. Flemingo eremuan egiten ari diren babes ofizialeko 20 etxebizitzaren inguruko zozketa zen. Horiek eskuratu ahal izateko erabiliko duten zerrenda osatzeko egindako zozketa, hain zuzen ere.

Interes handiz jarraitu zituzten bertaratuek zozketaren azalpenak. Bi haurrek atera zituzten kutxa batetik zerrendako zenbakiak. Orain, zerrenda zehaztuta dago eta lehen 19 lagunek eta elbarritasuna duen zerrendako lehenak izango dute etxebizitza eskuratzeko aukera. Horretarako Eusko Jaurlaritzak zehaztutako baldintzak bete beharko dituzte.

Zenbait gaztek protestaldia burutu zuten Gurearen kanpoin. «Etxebizitza eskubidea den heinean babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa ez da egoera honi eman beharreko benetako irtenbidea», azaldu zuten.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...